

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

#### **Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019ko zerga ordaintzeko borondatezko epea**

Susana Diaz de Arcaya Cubillok, Iruraiz-Gaunako Udaleko alkateak, jakinarazten du:

2019ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era arteko egun baliodunetan (biak barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2019ko zergari dagozkion ordainagiriak prest egongo direla borondatezko epean ordaintzeko.

Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako izapiderik egin beharko, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berebean helbideratuta badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Bankuren batean ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko epean egitea izango dute, udal honen kontuan edo, bertatik bertara, udal bulegoetan.

Aipatutako epea igaro eta zerga hori ordaindu ez bada, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2019ko otsailaren 22a

*Alkatea*

*SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO*